

10. gaia: Euskara batua

Aipuen zerrenda

Iturria:

Zuazo, Koldo, 2005, *Euskara batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.

[AIP 153]: Mitxelena 1978

Arantzazun esana da, eta ehunen bat aldiz errepikatua gero, ez zela inor deus asmatzen ari; euskal literaturaren indarrez ongi hornitua ageri zen joera bati, ematen zitzaioala amore. [...] Hau ez da hitz eta bitsa, hau froga daiteke, eta erraz gainera. Besterik pentsatzen duenak irakur beza 1959ko Arestiren *Maldan behera* poema luzea [...]. Hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. [...] Eta hori, ikus dezakegunez, Arantzazuko bilera baino bederatzi urtez lehenagoko kontua duzue.

[AIP 157] Aresti 1968

Urtarrileko batzarra Bilbaon ospatu zen. Nire denbora apurretik ordu pare bat ohosturik, bertara azaldu nintzen. Eta gure Akademiaren urrezko eztaiak ospatzeko asmoak aipatu zirenean, jaiak eta jaiak ekarri ziren ahotara. Orduan hasarratu nintzen: “Gureak guztiak dira jaiegunak. Eta astegunak noizko dira? Lanean haritzeko orduak ez al du oraindik atea jo?” Eta literatur-euskara bat egon dadin, aipatu nuen premia. Katalanen ereduak ekarri nuen aiputara, Pompeu Fabraren lan miragarria. Hizkuntza batek ezin dukeela bizitza normal bat ereman, erregela eta lege zehatz hestu batzuei ez badago loturik. Eta Euskaltzaindiak niri jaramon egitea beste erremediorik ez du eduki.

[AIP 159] Mitxelena 1968

Euskaltzaindiak ezin arbuia dezake euskal hitzik, ez hangorik ez hemengorik, ez zaharrik ez berriagorik. Nahiago ditu bizi-bizirik dirautenak zaharkituak baino; gehiago erabiltzen direnak eta zabalago hedatuak daudenak. Aberastasunari begira dago beti, garbitasunari baino areago.

[AIP 161] Haranburu Altuna 1972

Euskararen egokitzea bere hastapenean dago oraino, baina pausorik garrantzitsuena emanik dugu. Eten dugu historikoki eta eredu bezala jaso eta jasan dugun euskara. [...]

Leizarragarena aipatzeke, bi eten edo iraultza nagusi obratu dira gure literaturan. Bata Sabino Aranak eta bere akolitoak osatu zuten gizaldi honen lehen urteetan; bestea 1960-64 urteetan izan da.

Lehenengo etenak (sabinista) formaz, eraz aldatu nahi izan zuen euskara. Gaiaz, ordea, lehenen jarraitu zuen; eten honen pertsonak eta frogatzaileak seinu berekoak zirenez, hots, burges-klerikal. [...] Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan, berriz, forma eta gaiaren aldetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinbologia *h* dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta, historikoki bederen, *h* agertzen zaiku sinbolo plastiko bezela.

[AIP 161-162] Labaien 1972

Por las propias declaraciones de sus autores sabemos que tomaron la *hache* por símbolo de sus propósitos que son los de destruir la obra cultural realizada en los cincuenta años anteriores. Y principalmente, en lo que tienen de sentido tradicional, de adhesión a la fe religiosa de nuestros mayores; minando sus modos de vida, sus costumbres y su organización familiar.

Es el odio al cristianismo, no la conciencia de un justo socialismo que les impulsa en su obsesión teórica-revolucionaria, ¡IRAULTZA! a la negación de los valores del tesoro moral y espiritual de nuestro pueblo.

No hay sino leer los libros y folletos que van publicando en sus colecciones; los artículos de sus periódicos y revistas, plagados casi todos de obscenidades y fraseología marxistoide. Eso sí bajo capa de *batasuna* y profusión de *haches*.

[AIP 165] Latiegi & Oñatibia 1982

Agian, irakurle, ikurrintzat *h*-a zergaitik artu zuten jakin naiko duzu. Ba..., *h*-ari eleneraz ETA esaten zaiolako. ETArrak baitziran, ain zuzen, 'el batua' ren sortzaile aiek danak!

[AIP 166-167] Villasante 1973

Beste gauza bat erruz eta maila orotan (baita erlijio eta pastoral mailatan ere) zabaltzen dute Euskaltzaindiaren batasun bideari ateak itxi nahi dizkietenak: bide hori ateoena dela edo erlijio gabeena.

Asmazio honek ez du ez buru eta ez buztanik, ez itxurarik, ez egiarik, ez egia antzik ere. Alde hortatik gezurtatzea ere ez luke merezi. Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiaren alde aurpegia ateratzera behartuta nago. Neure indar eta ahal guztiaz salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Arazo honek hizkuntzaz bakar-bakarrik du zer ikusia, eta deus ez erlijioaz, fedeaz edo politikaz. Bakoitzak eskubide osoa du bere pentsakera edo ikusmolde berezia izateko euskera idatziaren batasun kontuan. Baina Jainkoaren amorioarren! ez daitezela zeruko gauzak eta lurrekoak berriro nahas. [...] Ipar eta hegoaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko, *h* letra hartzea gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Ez da, beraz, letra hori ezeren bandera; gehienez ere izan daiteke batasunaren bandera, eta inork ez du eskubiderik, ez alde batetik ez bestetik, hori ezeren banderatzat hartzeko.

[AIP 182] Euskaltzaindia 1991

Ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen direla euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa.